

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Maiatzaren 20ko Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren 134/2021 Foru Agindua, Kontrastako hondakin uren araztegia eraikitzeke proiektuari buruzko ingurumen inpaktuaren txostena egiten duena

“Kontrastan (Araba) hondakin uren araztegia eraikitzeke proiektua” ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen bidez araututako ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren mende dago; izan ere, proiektu hori honako kasu hauetan kokatzen da:

– Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko 3/98 Lege Orokorren I C eranskina – Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Sinplifikatuko prozedura izan behar duten obra edo jardueren zerrenda (2.7. azpitaldea “Lehenengo mailako sareko hondakin urak garraiatzeko instalakuntzak”).

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, proiektuaren sustatzaileak lehen aipatutako dokumentazio hori eman ondoren, hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, 21/2013 Legearen 46.1. artikuluan ezarritako eran.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2021eko maiatzaren 13an emandako ingurumen inpaktuaren txostenean ezarritako ebaluazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat dator 21/2013 Legeak 47. artikuluen hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa, aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena.

1.1.1. Abiapuntua.

Kontrastako kontzejuko hondakin uren tratamenduaren egoera nahiko eskasa da; izan ere, biztanleriak ganbera bikoitzeko bi hobi septiko oso zahar ditu, eta bakoitzak 16 m³-ko edukiera du. Gaur egun, argi dago bi hobi septikoak ez direla eraginkorrak, erabat gainezka daudela eta ez dutela arazteko ia gaitasunik. Hobi horietako bakoitzak, dekantatu ondoren, ubide publiko banatara isurtzen ditu ur beltzak. Lehenengoak iparraldeko saneamendu saretik datozen hondakinak biltzen ditu eta Larrondoa ibaira isurtzen ditu urak. Bigarrenak hegoaldeko saneamendu sareko hondakinak biltzen ditu eta Kontrasta errekan isurtzen ditu, geroago Larrondoa ibaian isurtzeko.

1.1.2. Aurreikusitako irtenbidea.

Haraneko udalerrian, Kontrastan, hondakin uren araztegi bat eta hondakin urak ponpatzeko estazio bat eraikitzea aurreikusten da, bai eta horiekin lotutako azpiegitura batzuk ere, hala nola bi estazioetarako hoditeria, kutxatila eta aipatutako hondakin urak ponpatzeko estaziora sartzeko azpiegiturak.

Hondakin urak ponpatzeko estazioak grabitatez jasoko ditu hegoaldeko saneamendu saretik datozen ur beltzak, eta, ondoren, bultzada ponpa baten eta dagokion bultzada hodiaren bidez, hegoaldeko urak iparraldeko urekin lotuko ditu, eta grabitatez biak hondakin uren araztegiara

iritsiko dira. Jarduketa honek Kontrastako errekarara egiten diren isurketa jarraituak ezabatuko ditu.

Ur beltzak, hondakin uren araztegitik igaro ondoren, Larrondoa ibaira eramango dira (hodi baten bidez).

1.1.3. Aurreikusitako jardueren deskribapena.

Hondakin uren araztegia Haraneko 1. poligonoko 824. lurzatian egongo da, eta 2.729 m²-ko azalera hartuko du, proiektuaren datuen arabera. Azpiegitura hau 150 biztanleko herriarentzat diseinatu da. Hondakin urak tratatzeko sistema fluxu bertikaleko fitoarazketa sistema edo fluxu bertikaleko hezegune artifiziala izango da. Baheketa egin ondoren, sistema horiek putzu estankoean tratatuko dituzte ur beltzak. Putzu horietan lezka landatuko da (*Phragmites australis*) tamaina aldakorreko geruzetan dauden legar iragazkien gainean, lodiera desberdinetako materialez osatuak.

Hondakin uren araztegitik kolektore bat aterako da, 280 metro luzekoa, eta Haraneko 1. poligonoko 824, 826, 827b, 828, 1612, 1611, 1613 eta 1933. lurzatiak zeharkatuko ditu, Larrondoa ibairaino. Kolektore horrek atzera ezineko balbula bat izango du, ura eta animaliak kolektorera sar ez daitezen. Hoditeria horretan 6 kontrol putzu jarriko dira. Gaur egun kolektore hori badago, baina berritzea planteatzen da proiektuan.

Hondakin uren araztegiaren sarrerako kolektorea lehendik ere badago, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango egitea; soilik 824 lurzatiaren barruan jarri beharko dira araztegiaren bahearen sarreraraino lotuneak.

Araztegia eraikitakoan, 2,00 metroko altuerako hesi bat eraikiko da, forma erronboidal galbanizatuko bihurtura sinpleko sarez egina eta kolore berdez plastifikatua, hormigoizko zapataren gainean. Instalazioak bi sarbide puntu izango ditu edozein makineriarentzat.



Hondakin uren araztegiaren kokapena (gorriz) eta Larrondoa ibairainoko kolektorea

Hondakin urak ponpatzeko estazioa Haraneko 1. poligonoko 9005 lurzatian egongo da, eta 40 m²-ko azalera hartuko du, proiektuaren arabera. Araztegi hori hormigoizko armatuzkoa izango da, eta hainbat gailu izango ditu Kontrastako hegoaldeko saneamendu saretik datozen urak bultzatzeko. Azpiegitura horrek 105 metroko hoditeria izango du gainezkabide gisa, eta

Haraneko 1. poligonoko 9005 eta 743 lurzatiak zeharkatuko ditu. Kolektore horrek atzera ezinako balbula bat izango du. Hoditeriaren ibilbidean zehar 4 kontrol putzu eraikitzea espero da, bat hoditeriaren iskin bakoitzean.

Azkenik, hondakin urak ponpatzeko estazioaren irisgarritasun baldintzak hobetzeko, estazio horretara sartzeko bidea hobetuko da. Horretarako, bidearen hormigoiztatzea aurreikusita dago, behealdeko sarbideetik estazioraino.



Hondakin urak ponpatzeko estazioaren kokapena (gorriz), gainezkabidearen kolektorea (urdinez) eta hobetu beharreko bidea (laranjaz)

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Proiektuaren eremu geografikoa Harana udalerrian dago, Kontrastako kontzejuan. Kontrasta Haraneko ekialdeko sarreraren gunerik estuenean kokatuta dago, eta mutur horretatik ixten du. Muino baten gainean dago, 825 metro inguruko altueran, Nafarroako Ameskoak eskualdearekin muga egiten duen kokagune pribilegiatu batean. Ingurune hurbilenean laborantza soroak daude, zerealak normalean, eta lurzati batzuetan sega belardiak ezarri dira edo abereek larrean bertan jateko tokiak. Maldak landatzea eragozten duen eremuetan zuhaitz masak daude. Mendi mazelen behealdean, haritz pubeszentea da espezie nagusia (*Quercus humilis*), eta, garaiera handieneko eremuetan, pagoa (*Fagus sylvatica*). Beraz, erliebe uhindua duen mendigunea da.

Gaur egun hondakin uren araztegiaren eraikuntza diseinatuta dagoen eremuak nekazaritzarako erabilera du, erliebe leunekoa da eta sarbide onak ditu. Inguru horretan, bidetik hurbilen dagoen landare banda estu bat dago: batez ere sasía (*Rubus sp*), arrosa (*Rosa sp*), klematida (*Clematis sp*), aligustrea (*Ligustrum vulgare*), lantana (*Viburnum lantana*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta aranondo basatien oin solte batzuk (*Prunus insititia*) daude. Larrondoia ibairaino doan isuriak soroak zeharkatzen ditu, eta inguruko zuhaixka espezie oso ohikoak dituen ezpondatxo bat, hala nola elorri gorria (*Crataegus monogyna*), sasía (*Rubus sp*) eta arrosa (*Rosa sp*). Isurketa hodia ibaian amaitzen da, ibaiertzeko landaretza moduko banda estu samar bat zeharkatuz. Banda horretan, ohikoa da makalak (*Populus sp*) eta landa astigaren bat (*Acer campestre*) salteatuta aurkitzea, bai eta hurritzak dituen oihanpe bat (*Coryllus avellana*) eta elorri zuria ere, beste espezie batzuen artean.



Hondakin uren araztegia bidearen ondoan kokatuko da. Araztegia argazkiaren eskuinaldean agertzen den bidetik gertu egongo da. Hoditeria araztegitik abiatuko litzateke, ekialdetik mendebalderantz, Larrondoa ibairaino

Bidearen eta laborantzaren artean, landaretza naturalaren banda estua ikus daiteke. Herria hondakin uren araztegitik 220 metrora dago.

Hondakin urak ponpatzeko estazioa bide arteko eremu batean dago, Kontrastatik gertu (herrietik 200 metrora), malda ertaineko eremu batean, gaur egungo erabilera nabarmenik gabe. Gune horretan dago putzu septikoa, eta bertan biltzen dira gaur egun Kontrasta guneko hegoaldeko saneamendu saretik datozen ur beltzak. Eremu hori garai batean bide bat izan zen, baina gaur egun funtzionalitate hori galdu du, oso gutxi igarotzen baita. Zuhaixa eta/edo zuhaitz landaretza naturala bide-ertzetan baino ez da agertzen. Gainezkabidea geltokitik abiatuko litzateke bidearen trazadurari jarraituz, eta soro bat zeharkatuko luke Kontrasta errekarara iritsi arte. Errekara iritsi baino lehen, hoditeriak landaredi banda txiki bat zeharkatuko luke (10 metro inguruko zabalerakoa), beste espezie batzuen artean astigar arrunt (*Acer campestre*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta arbustu arrunta (*Ligustrum vulgare*) dituena.



Hondakin urak ponpatzeko estazioaren kokapena proiektuan

1.3. Aztertutako aukerak.

Estazioen (hondakin urak arazteko estazioa eta hondakin urak ponpatzeko estazioa) egokieraren alternatibak eta hondakin urak arazteko estazioaren tratamendu mota.

Tratamendu estazioen eraikuntzari dagokionez, sustatzaileak azaldu duenez, egungo hobi septikoen ondoan kokatu nahi izan dira, eta horiek berritza baztertu da, oso egoera txarrean

daudelako eta gaitasun eskasa dutelako. Egungo hobi septikoetatik hurbil dagoen kokaleku bat bilatu da, eraginkortasun tekniko eta ekonomiko handiagoa lortzeko, ahalik eta inpaktu txikiena sortuz eta lur gutxiago desjabetuz.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, hondakin uren araztegiaren hondakinak tratatzeko sei aukera aurreikusi eta aztertu dira.

Jarraian, taula batean jaso dira aztertutako aukera bakoitzaren ezaugarri nagusiak:

	0 AUKERA	1 AUKERA	2 AUKERA	3 AUKERA	4 AUKERA	5 AUKERA
	—	LOHI AKTIBOAK	BIODISKOAK	IRAGAZKI BIOLOGIKOAK	FLUXU HORIZONTALEKO HEZEGUNE ARTIFIZIALA	FLUXU BERTIKALEKO HEZEGUNE ARTIFIZIALA (2 FASE) (HAUTATUA)
Arazketa errendimendua	Baxua	Altua	Altua	Altua	Altua	Altua
Kutsadura mailara egokitzea	Deuseza	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Ertaina	Ertaina
Behar duen azalera	Baxua	Baxua	Baxua	Baxua	Altua	Altua
Usainak sortzea	Altua	Baxua	Baxua	Baxua	Baxua	Baxua
Zaratak sortzea	Baxua	Altua	Altua	Altua	Baxua	Baxua
Paisaia integrazioa	Altua	Ertaina	Baxua	Baxua	Altua	Altua
Hondakinak sortzea	Sistemaren saturazioaren ondorioz tratatu gabeko ur beltzak	Lohi mineralizatuak, solidoak, esekiak eta hezeak	Lohi mineralizatuak, solidoak, esekiak eta hezeak	Lohi mineralizatuak, solidoak, esekiak eta hezeak	Biogasa, lohi mineralizatuak eta sega hondarrak	Lohi mineralizatuak eta sega hondarrak

Laburpen-taula (sustatzaileak aurkeztutako ingurumen-dokumentuarena), HUA hondakin egokien tratamendua zehazteko aztertutako alternatiben ezaugarriak jasotzen dituena

<input type="checkbox"/>	Ona
<input type="checkbox"/>	Ez ona, ez txarra
<input type="checkbox"/>	Txarra

Aurreko taulan ondorioztatzen den bezala, eta ingurumen dokumentuan azaltzen den bezala, 5. aukera (fluxu bertikaleko hezegune artifiziala) da ingurumenaren aldetik aukerarik abantailatsuen; izan ere, mantentze sistema erraza duen tratamendu bat hautatzen du, eta,aldi berean, arazketa sistema oso sendoa da. Emari eta karga handiko aldaketen aurrean bere burua eraginkortasunez erregulatzeko gaitasun handia du, eta bere arazketa errendimendua gainerako alternatiben parean dago. Horrela kalitate nahikoa duen efluentea bermatu ahal du. Ingurumenari dagokionez, positiboki baloratzen da egindako alternatiben azterketa.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	

UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako kontzejuen elkartea	
Aranzadi Zientzia Elkartea	
SEO Birdlife	
Alkate andrea - Haraneko Udaleko lehendakaria	
Kontrastako administrazio batzarra	
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	

Jasotako erantzunetan ikusitakoa laburbilduko dugu hemen (jasotako agirien kopia osoak erantsi dira).

- Ura - Uraren Agentziak jakinarazpen txostena bidali du, eta bertan aipatzen du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazten diola, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeari dagokionez gaiari buruzko informazioa ematea komenigarritzat jo baitezake. Ondoren, URA-Uraren Agentziako Plangintza eta Lanen Zuzendaritzak egindako txosten bat egin du, isurketaren kalitatearen diseinu balioak positiboki balioesteko. Amaitzeko, proposatutako edozein tratamendu sistema erabil daiteke, baldin eta behar bezala diseinatu, eraiki, funtzionatu eta mantentzen bada. Egokitzen jotzen ditu proiektua ingurumenean txertatzeko dokumentazioan proposatutako neurriak. Bestalde, gogorarazi du jabari publiko hidraulikoan egiten diren obrak, hala nola haren zaintza eremuan egiten direnak (hodiak eta, hala badagokio, sarbideak), administrazio hidrauliko eskudunaren aldez aurreko baimena beharko dutela (Ebroko Konfederazio Hidrografikoa), eta hori guztia URA-Uraren Agentziaren bidez izapidetuko da. Halaber, adierazten du urak biltzeko, lurrazalekoak zein lurpekoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako aldi baterako emakida edo baimena beharko dela aldez aurretik.

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak adierazi du, Museo eta Arkeologiaren Zerbitzuak egindako txostenaren bidez, obrek eragindako eremuan ez dagoela aztarnarik eta egitura arkeologikorik. Bestalde, adierazi du proiektuan edozein aldaketa eginez gero, baldin eta eragin arkeologikoak izan baditzaiteke, edo obretan aurkikuntzaren bat eginez gero, berehala jakinarazi behar zaiola Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 74. artikuluan jasotzen den bezala.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi zuen proiektu horren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, Natura Inguru-nearen Zerbitzuaren txostenaren bidez, egokitzen jotzen ditu ingurumen agiriaren balorazioak Natura 2000 Sareko espazioan (Entzia KBE eta Arabako Hegoaldeko Mendilerroen HBBE eta KBE) eta, oro har, ingurune naturalean izango dituen ondorioei dagokienez. Ingurumen agirian planteatutako neurriak hartzen diren guztietan, natura ondarean eragin esanguratsuak izatea baztertu daitekeela ondorioztatzen du.

- Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du proiektatutako elementuetako batzuk EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak (LPS) katalogatutako lurzoruan daudela, "Mendia" kategorian, "Basoa Mendi Barbana" azpikategorian, "Nekazaritza nahiz Abeltzaintzakoa eta Landazabalekoa" kategorian eta "Trantsizioko Landa Paisaia" azpikategorian.

Proiektuan jasotzen diren erabilerak eta jarduerak ikusita, eta LPSaren arabera, nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa egiten da. Nekazaritza Zuzendaritzak, nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloaren emaitza kontuan hartuta, ondorioztatzen du kontsultaren xede den proiektuak sortutako inpaktua bateragarritzat jotzen dela Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoaren arabera.

Halaber, nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloan adierazten da txosten tekniko eskatu beharko zaiola Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabiltzea, mantentzea eta zaintzea arautzen dituen 6/1995 Foru Araua aplikatzeko, landa bideei eragiten dien edozein jarduketa gauzatu aurretik.

- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du proiektuaren esparruan ez dela aurreikusten kultura ondarearen gaineko eraginik, eta, beraz, ez dagoela inolako eragozpenik izapidetzeko.

- Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak jakinarazi du ingurumen agiriko dokumentua aztertu ondoren egiaztatu dela egin beharreko jarduerak KBEko babeserako eremu periferikoari Arabako Mendilerroen HBBE eta KBE ES2110018 Babes Bereziko Eremuari eragiten diotela. Eremu horrek bere gidalerroak eta kontserbazio neurriak ditu. KBE/HBBEko Babes Bereziko Eremuan araztegi bat eraikitzeak dituen ondorioak aztertu eta ebaluatu ondoren, uste du ez dutela eragin nabarmenik izango habitat eta espezieetan, eta, gainera, eragin onuragarriak izango dituztela uraren kalitatean eta ingurune hidrikoari lotutako habitatetan. Era berean, uste du ingurumen organoak ezarri beharreko neurriek, hala nola ingurumen agirian jasotako neurriek bermatzen dutela horrelako proiektuei aplikatu beharreko ingurumen araudia behar bezala garatzen, jarraitzen eta betetzen dela.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

“Kontrastan (Araba) hondakin uren araztegia eraikitzeko proiektuaren” ondoriozko ingurumen inpaktu nagusiak bereizi egin behar direla uste da, haren ezarpena osatuko duten faseak kontuan hartuta, hau da, eraikuntza fasea eta ustiapen fasea. Ingurumen inpaktu horiek behar bezala deskribatu dira ingurumen agiriaren 6. apartatuan, oro har bateragarritzat jotzen direla kontuan hartuta. Jarraian, aztergai dugun proiektuaren ondoriozko ingurumen inpaktu nagusiak laburbiltzen dira:

ERAGINDAKO INGURUNEKO ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Geologia, geomorfologia	Proiektua osorik kokatzen da tuparri edo tuparri kareharri masibo edo geruzatuen gainean, iragazgaitzak izan daitezkeenak, nahiz eta iragazkortasun aldakorreko limolita edo hareharrien gainean egon daitezkeen. Aldagai horiei lotutako inpaktu nagusiak obrekin eta indusketekin, lurrak mugitzearekin, instalakuntza osagarrien eremuekin eta materialak biltzeko eremuekin lotuta daude. Inpaktu bateragarria, kokalekuaren aukeraketaren eta gauzatu beharreko lur mugimenduen garrantzi txikiaren ondorioz.
Lurzoruaren okupazioa	EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera, “Mendia” kategorian, “Basoa Mendi Barbana” azpikategorian, “Nekazaritza nahiz Abeltzaintzako eta Landazabalekoa” azpikategorian eta “Trantsizioko Landa Paisaia” kategorian sailkatutako lurzoruei dagozkie proiektuaren eremuko lurrak. Lurzoru horietan une hauetan gertatuko litzateke eragina: hondakin uren araztegiaren azpiegitura eta hondakin urak ponpatzeko estazioa eraikitzeko obra fasean, zangak induskatzean, obretarako instalazio osagarriak egitean eta materialak biltzean, nahiz ustiitze fasean, hondakin uren araztegia eraikitzean azalera bat hartuko litzatekeelako. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak egindako nekazaritzaren arloko eraginaren txostenak eta ebaluazioak ezartzen dute txostenaren xede den proiektuak sortutako inpaktua bateragarria dela Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak ezarritakoarekin.

ERAGINDAKO INGURUNeko ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Hidrogeologia eta hidrologia	<p>Ikuspuntu hidrografikotik eta eraikuntza fasean, inpaktu nagusiak obrek berez eragindakoak dira. Bestalde, jariatze uren bidez, Larrondoa ibaiaren ibilgura eta Kontrasta errekarara solido esekien kontzentrazio handiak bota daitezke zangen indusketa prozesuen ondorioz, batez ere, eta makineria olioak erabiltzearen ondoriozko isuriak edo ustekabeko isurketak gerta daitezke. Arriskua badago, eta ondorioak negatiboak izan daitezke, bereziki olioiei dagokienez.</p> <p>Kontrastako saneamendu sistema berriaren ustiapen fasean, Larrondoa ibaiako uren kalitatea hobetuko da, ibaira isurtzen diren uren parametroak nabarmen hobetuko baitira, eta Kontrasta errekarako uren kalitatea ere hobetuko da, ez baitira gutxi tratatutako urak isuriko, gaur egun ez bezala. Uste da inpaktua bateragarria izango dela ebazpen honetan eta sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian adierazitako ingurumen neurriak eta baldintzak hartzen badira.</p>
Entzia KBE eta Arabako Hegoaldeko Mendilerroen HBBE eta KBE	<p>Proiektua Natura 2000 Sareko 2 espazioren artean dago, eta hondakin urak ponpatzeko estazioak instalazioak horietako baten babes eremu periferikoan sartuko dira. Iparraldean, Entziako Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) (ES2110022), urriaren 6ko 188/2015 Dekretuaren bidez deklaratu. Dekretu horren bidez, Entzia Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2110022) izendatu zen, eta haren araudia dekretu horretan jasotzen da, baita Diputatuaren Kontseiluaren azaroaren 10eko 634/2015 Erabakiaren bidez onartutako "kudeaketa jarraibideak eta neurriak" agirian ere. Hegoaldean, Arabako Hegoaldeko Mendilerroen Kontserbazio Bereziko Eremua eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (KBE-HBBE) (ES2110018) urtarrilaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bidez aitortu zen. Haren araudia dekretu horretan eta Diputatuaren Kontseiluaren azaroaren 15eko 765/2016 Erabakian onartutako "jarraibideak eta neurriak" agirian jasotzen da. Aurreikusitako obrak oso txikiak direnez, esku hartutako eremuetako lurzorua erabilerek, funtsean nekazaritzakoak, ez dute eragin nabarmenik izango Natura 2000 espazioetan, proiektuaren garapenaren ondorioz. Aitzitik, Arabako Hegoaldeko Mendilerroen KBE/HBBEan eragin positiboa izango du, ez baita isurketarik botako Kontrastako errekan eta Larrondoa ibaira isurtzen diren urak hobetuko dira, hondakin uren araztegiaren tratatu ondoren.</p> <p>Hautatutako arazketa sistema estentsiboa oso egokitzat jotzen da ingurumen ondorioetarako.</p>
Landaredia eta habitatak	<p>Proiektuak landaredi naturaleko oso azalera txikiari eragiten dio. Eraikuntza fasean, ibaiertzeko landarediaren eta ibar basoetako nekazaritza landaketen 150 m² eta sastrakadiaren 5 m² ingururi eragingo zaie, hondakin urak ponpatzeko estazioaren inguruan. Proiektuaren arabera, erasandako azalera iraunkorra balio gutxiko 250 m² sastrakadiakoa eta substratu naturaleko bideko 318 m² izango da.</p> <p>Hondakin uren ponpaketa estazioa eta horri lotutako elementuak (monolaborantzakoak izan ezik), erreferentziako kartografiaren arabera, landaredi naturalaren gainean eraikiko dira, eta honako formazio hauei eragingo die: Arantzadi ez atlantikoak eta bigarren aukeran albitz belarra (EUNIS 2019) eta hurritzia erriberako sahasiarekin (EUNIS 2019). Lehenengoari dagokionez, lurlean albitz belarrik ez dagoela egiazta daiteke. Zona hori marjinala da, ingurumen balio txikia duten eraikin batzuen atzealdean dagoena. Gaur egun, hondakin geldoen unean uneko isurketak daude. Bigarren formazioa, ordea, egon badago. Eraikuntza fasean, eragindako azalera 100 m²-koa baino ez da izango (10x10 metroko kalea). Inpaktua neurritzakoa izango da eraikuntza fasean, eta bateragarria ustiapen fasean, betiere ebazpen honetan eta sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian adierazitako ingurumen neurriak eta baldintzak hartzen badira.</p>
Flora	<p>Ez da aipatu proiektuaren eremuko espezie mehatxatuen EAEko katalogoan sartutako espezierik, eta ez da hauteman ingurumen agiria idazteko egindako landa lanean. Beraz, alde horretatik ez da inpakturik espero.</p> <p>Bestalde, lezka arrunta (<i>Phragmites australis</i>), hondakin uren araztegiako elementu fitoaraztaile gisa erabiltzen dena, espezie autoktonoa da, europarra eta EAEn erkide diren formazioak dituena, non izaera naturalarekin ematen baitira lurzoru putzutsuetan eta sakonera txikiko uretan. Alde horretatik, efektua onuragarria izango da.</p>
Fauna	<p>Obren fasean faunan sortuko diren eraginak zaratak gehituko direlako izango dira, baita lurzoria galduko delako eta faunak lotura duen habitata eta/edo landaredia estaldura apurto egingo delako ere.</p> <p>Larrondoa ibaian dauden anfibio eta arrainei dagokienez, aurreikuspenen arabera Kontrastako saneamendu proiektua osorik egikaritzen denean, hobekuntza nabarmenak egingo dira habitat hidrológicoan.</p> <p>Uste da inpaktua bateragarria izango dela ebazpen honetan eta sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian adierazitako ingurumen neurriak eta baldintzak hartzen badira.</p>
Igarobide ekologikoak	<p>Ez da igarobide edo lotura eremurik zehaztu proiektuaren eremuan. Bestalde, jarduketa eremua Natura 2000 Sareari dagozkion bi espazioren artean dago: Entziako KBEaren (ES2110022) eta Arabako Hegoaldeko Mendilerroen KBE/HBBEaren artean. Jarduketa eremua horien inguruko moteltze eremuan dago. Proiektatutako jarduerak ez dute eragin larririk izango landare formazio naturalen funtzionaltasunean; izan ere, formazio horietako jarduketak inpaktuak minimizatze beharrezko prebentzio neurriak hartuz gauzatuko dira, eta, ondoren, inpaktu horiek gertatuz gero, neurri zuzentzaileak gauzatuko dira landare formazio horien lotura funtzioak ahalik eta modurik onenean lehengoratzeko.</p>

ERAGINDAKO INGURUNENKO ELEMENTUA/EREMUA	DESKRIBAPEN LABURRA
Paisaia	<p>Proiektuaren eremua katalogo hauetan dago:</p> <p>— Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen katalogoa (Diputatuen Kontseiluaren 829/2005 Erabakia, irailaren 27koa), Harana-Oteo-Markillano izena duena (CPSSA 7).</p> <p>Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektuak adierazten du 169-Arana ikusmen arroa paisaia balio "handikoa" dela; bertan sartzen dira hondakin urak ponpatzeko estazioa eta horri lotutako elementuak. Aldiz, paisaia balio eskasekoa da 168-Kontrasta ikusmen arroa, hondakin uren araztegia bertan sartuta geratzen baita.</p> <p>Eraikuntza fasearekin lotutako aldaketak soilik aldi baterakoak izango dira (pilaketa eremua, instalazio osagarrien eremua, etab.). Ustiapen fasean hondakin uren araztegia paisaian integratuta geratuko da, hautatutako tratamendu instalazioa baita paisaian integrazio maila handiena duena. Bestalde, hondakin urak ponpatzeko estazioaren eta horri lotutako azpiegituren neurri urriek ez dute eragin nabarmenik izango katalogatutako paisaietan.</p> <p>Uste da inpaktua bateragarria izango dela ebazpen honetan eta sustatzaileak aurkeztutako ingurumen agirian adierazitako ingurumen neurriak eta baldintzak hartzen badira.</p>
Kultura ondarea	<p>Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura honetako kontsulta fasean, jakinarazi dute ez dela aurreikusten proiektuak kultura ondarean eraginik izango duenik.</p>
Giza habitata	<p>Atal honetan ez dago eragin negatibo nabarmenik; izan ere, obrak populazio gunetik nahiko urrun izango dira, eta, beraz, zaratak eta/edo hautsak eragindako eragozpenak garrantzi txikiak izango dira. Obregatik ere ez da trafikoan igoera handirik aurreikusten. Hondakin uren araztegia instalatuko den 824 zenbakiko finkaren jabeari ekonomikoki eragingo zaio azalera landagarria galtzeagatik, baina desjabetze prozesu baten bidez behar bezala konpentsatu beharko da. Bestalde, ibarrari dagokionez, eragin positiboa izan dezake; izan ere, obren eraginez, epe mugatu baterako bada ere, langileek eskatutako zerbitzuak areagotu daitezke.</p> <p>Proiektua interes publikokoa eta osasungarria dela kontuan hartuta, biztanleriarengan eragin bateragarria dauka.</p>
Klima aldaketa	<p>Eraikuntza fasean, berotegi efektuko gasen isurketa areagotu egingo da eremu horretan, makineriaren zirkulazioa handitu egingo delako. Tokiko emisioen gorakada hori txikia da, eta ez da esanguratsua maila globalean. Bestalde, proiektuak joera positiboa izango du gauzatze fasean klima aldaketaren aurkako borrokan, ez baita desplazamendurik egingo egungo hobi septikoetatik datozen hondakinak kentzeko. Gainera, ezarriko den landarediak CO₂ hustubide efektua sortuko du.</p>
Arriskuak	<p>— Sute arriskua egongo da gutxienean azalera baten gainean, proiektuaren azalera osoarekin alderatuta, eta, beraz, eragina txikia izango da. Ez da beharrezkoa neurri espezifikoak hartzea, ingurumen faktore horrekin eta beste batzuekin zerikusia duten jardunbide egokietatik harago (obran erabilitako makineriaren kontrola eta babes ekipamenduen eskuragarritasuna).</p> <p>— Ez da aurreikusten proiektuak jarduera eremuan uholde arriskua areagotuko duenik. Kartografian, instalazioak ez dira ageri lehenasunezko fluxu eremuan, URA-Uraren Agentziaren uholde arriskuen errepikatze denboren kasuan, ezta uholde arrisku nabarmena duten eremuetan ere.</p> <p>— Ez da arrisku sismikorik hauteman eremu horretan.</p>

Aurreikusten da "Kontrastan (Araba) hondakin uren araztegia eraikitzeko proiektuan" jasotako jarduketek ez dutela eragin handirik izango ingurumenean; bateragarriak izango dira, eta uren kalitatean eragin onuragarria izango dute ustiapen fasean. Hori guztia baldin eta bat badator ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura honen esparruan sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan deskribatutako jarduerekin eta ebazpen honetan jasotako zehaztapenak osorik errespetatzen badira.

4. Babes eta zuzenketa neurriak

Ingurumen agiriko 7. idatz zatian aipatu dira proiektua ingurumenean txertatzeko zenbait prebentzio eta zuzenketa neurri, zeinak zuzentzat jo ditugun, oro har. Beraz, egokia da haiek ezartzea, agiri horretan azaldutakoarekin bat etorritik. Gure ustez, ordea, neurri osagarri batzuk hartu behar dira, eraginpeko eremuan ingurumen ondorio negatiborik izan ez dadin edo ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezken. Hona hemen:

A) Obrak hasi aurretik sustatzaileak abisua emango dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, obren ingurumen jarraipen egokia egin dadin eta ingurumen eraginari buruzko ebazpen honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatu dadin.

B) Zehazki mugatu eta adieraziko da proiektuak eragiten dien azalaren ingurua, ingurumen balio handieneko eremuetan balizak eta seinaleztapen egokiak jarrita. Seinale horiek jartzen direnean, aurrean egon beharko dira obraren zuzendaritza, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren

aldetik, kontratako obra burua eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuko teknikari bat. Ingurumen balio handieneko eremuak honako hauek dira:

– Ur bazterreko ezpondak eta landaredia, hondakin uren araztegiko isurketa hodia zeharkatzen duena Larrondoa ibairaino.

– Ur bazterreko landaredia hondakin urak ponpatzeko estazioko gainezkabidearen lotunean.

C) Landaketak, ereintzak eta aldaxkak egingo dira ingurumen agirian aurreikusitako eremuetan: hondakin urak ponpatzeko estazioaren inguruan (9005 lurzatia), Larrondoa ibaira isurtzen den puntuan, Kontrasta errekaaren gainezkabidean, 828 eta 1612 lursailen arteko heskaian, hondakin uren araztegiaren perimetroan eta ezpondetan. Ebazpen honetako F atalean azaltzen dira landatu beharreko espezieak, landareen ezaugarriak eta landatze metodoak.

D) Ibaiertzean hodiak jarrita egingo diren gurutzatze obrak gauzatzean, eraikuntza prozedura bereziak ezarri beharko dira, ahalik eta lur mugimendu gutxien egin dadin eta balio natural handieneko zonetan kalterik eragin ez dezaten. Honako arau hauei jarraituz egin beharko dira lan horiek:

– Sare hidrografikoko ibaiertzetan ez da jarriko ez kutxatilarik, ez bentosarik ez eta bestelako fabrika obrarik ere. Ingurumen kalitate eta hauskortasun handieneko areetatik kanpo jarriko dira hustubideak edo ibilgura isurtzeko guneak egiteko beharrezkoak diren fabrika obrak. Horretarako, aurrez Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak lekuan bertan adieraziko du zein diren area horiek. Ibaiertz horietan ezingo da obrako materialik biltegitatu, ez eta lurrik edo indusketa materialik metatu ere.

– Ibaiertzeko landarediaren eta kaltetutako beste ingurune txikiago batzuen ezaugarriei dagokienez aurrekoaren antzeko egoera lortzeko, eremuko berezko espezieak erabiliko dira. Zuhaiak landatzeko, ereiteko eta aldaxkak jartzeko F atalean zehaztutako baldintzen arabera egingo dira landaketak.

– Ibaiertzak babesteko eta ibaiko ezpondak egonkortzeko egiturak, behar izanez gero, ingurunean egokituko dira. Horretarako, zuloak landare lurrez beteko dira eta bertoko zuhaitz, zuhaixka eta belar landaredia ezarriko da landaketen eta aldaxkatzeen bitartez.

E) Landaredi naturala duten lurretan eta, oro har, eraikuntza lanek erasaten dituzten eta ingurumena lehengoratu behar den eremuetan, landaredia lehengoratzeko programa osoa egin beharko da eta paisaia integratzekoa, planteatu diren fabrika obren inguruetan. Programa horrek honako eragiketa hauek hartu beharko ditu barne obraren eraginpeko eremu osoan:

– Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guzuetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Gutxienez 0,4 metroko landare lurra duen geruza bat ekartzea eta ondoren xehetasunez zehaztea.

– Lurra landu eta harrotzeko eta ondoren xehatzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko eta egoki prestatzeko.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako, soropil espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, erasango den eremuko klimarako eta lurzoru motarako egokia, eta Ingurumen Zuzendaritzak ontzat eman beharrekoa.

F) Hauek dira jarduketa eremuetan egin beharreko landaketen/ereiteen ezaugarriak:

– Zuhaitz espezieak (aldaxkak jartzea):

80 cm-ko altuera eta 5 cm-ko diametroa duten aleak. Landareen arteko distantzia 1,0-1,5 m:

Salix alba.

Salix atrocinerea.

Salix purpurea.

– Zuhaixken espezieak:

0,4-0,8 metroko garaierako aleak. 2 x 2 m-ko landaketa-markoak Zuloaren gutxieneko tamaina: 0,4x0,4x0,4m.

Coryllus avellana.

Crataegus monogyna.

Cornus sanguinea.

Ligustrum vulgare.

Prunus insititia.

Landareak sartu ondoren, zuloa edo zanga bete egingo da, kalitatezko landare lurrezko lehen ekarpen baten bidez, behar bezala trinkotutako 20 cm-tik 20 cm-ra bitarteko geruzetan. Landareak babesteko 60 cm-ko altuera duen hodi babeslea jarri beharko da.

Landaketa/aldaxkatze garaia: abendutik otsailera.

Gramineoak espezie lekadunekin batera erein daitezke. Ereintza bolean egin ahal izango da, aurretik lurra prestatuz.

Ereiteko garaia: abendutik otsailera.

G) Bermatu egin beharko da zurezko landare estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpenaldian, behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Hemen kontuan hartzekoak: defizit hidrikoa den garaietan ureztatzea, landare hilak ordeztzea, zurkaintzak eta oinarriko babesak ordeztzea (behar denean), sasiak kentzea eta abar.

H) Hodiak eta beste azpiegiturak kokatzeko proposatutako lekuetan, landare lurreko geruzak lurzoruko beste geruzetatik bereiz aterako dira. Ahal dela, berehala birbanatuko dira, edo, ezin bada, metatu egingo dira Aldundi honetako ingurumen organoak baimendu beharreko leku batean. Lur metaketan gehienezko altuera 2,5 metrokoa izango da, lurra trinkotu ez dadin, eta sekzio trapezoidalekoak izango dira. Obrak eragiten dien eta ebazpen honetako aurreko paragrafoetan azaltzen diren eremuetan landaretza eta lurzorua leheneratzeko lanetarako erabiliko da landare lurra.

I) Larrondoa eta Kontrasta ibilguen inguruetan, makinak eta kamioiak mugitzea saihestuko da, uraren kalitatea ahalik eta gutxien nahasteko.

J) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabiltzekoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegira edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Bide zoruak kentzean aterako diren eraikuntza eta eraispin hondakinak 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraispin hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena).

K) Ez dira jarriko zerbitzu guneak, makinaria parkeak edo produktu kutsagarriak biltzeko eremuak sare hidrografikotik gertu.

L) Landatutako nekazaritza eremuan hornidurarako hodiak instalatzeko sakonerak bermatu beharko du hodi horri ez diola inola eragingo laborantzarako eta lurraren prestaketarako egin beharreko sakoneko landaketak.

M) Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du nekazaritza sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa adierazten dela Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari txosten teknikoa eskatu beharko zaiola landa bideei eragiten dien edozein jarduketa gauzatu aurretik, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabiltzea, mantentzea eta zaintzea arautzen dituen 6/1995 Foru Araua aplikatzeko.

N) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

5. Zaintza eta jarraipena

Ingurumen agiriaren 8. idatz zatian, "Ingurumen Zaintzako Programa" izenekoan, jaso bezala, komenigarritzat jotzen dugu ingurumen alderdien jarraipena egitea. Jarraipen hori modu koordinatuan egin beharko lukete Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Iraunkortasun Zerbitzuak eta Ur Zerbitzuak, eraikuntza fasean, ingurumena lehengoratzeko eta okerrak zuzentzeko ezarritako neurriak eraginkorrak diren ala ez ikusi eta eraginkortasuna ebaluatzeko, eta egon daitezkeen hutsak zuzentzeko.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa "Kontrastan (Araba) hondakin uren araztegia eraikitzeko proiektua" ren ingurumen inpaktuari buruzko txostena egitea.

Bigarrena Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen eragineko txosten hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 20a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA